

**Atea zabalik mantentzen ...**

Angela McRobbie-ri elkarrizketa, E/J Gonzalez Polledok,  
Maria Jose Belbelek eta Rosa Reitsamerrek egina.

Angela McRobbie, Medioak eta Komunikazioak irakasten du Goldsmiths Collegen (Londreseko Unibertsitatea), eta pop kultura, egungo praktika mediatiko eta feminismoaren alorretako pentsalari interesgarrienetako bat da. Ia lau hamarkadako haren lana Stuart Hall-i eta Birmingham eskolaren hasierako soziologo britainiarrei lotuta dago eta genealogia teoriko bat garatzen du feminismoaren zein marxismoaren tradizioetatik abiatuta. McRobbiek ez dio bere buruari filosofo deitzen, baina haren metodologia EZ da enpirista zorrotz batena: neskentzako aldizkariei, musikari, arteari eta medioei begiratuta, garrantzi teoriko eta politikoa duten testuinguru berriak zabaltzen ditu, eta gero elkarrizketan jartzen ditu haiek korrante desberdinetako lan feministekin (Braidotti-ren subjektu nomadak, Butlerren queerak eta Spivaken bigarren mailako postkoloniala) eta herri kulturaren eta aldaketa sozialaren inguruko beste zenbait azterketa teoriko eta politikorekin (Bhabha, Bordieu, Gilroy, Hardt, Jameson, gutxi batzuk aipatzearren).

Angela McRobbieren pop musikaren eta feminismoaren inguruko Rock and Sexuality, Simon Frith-ekin elkarlanean idatzia 1978an, rockaren izaera patriarkalaren inguruko saiakera aitzindaria izan zen, eta hura argitaratzea abiapuntua izan zen pop musikaz egindako hainbat eta hainbat azterketatan. 1980an Settling Accounts with Subculture. A Feminist Critique artikulua argitaratu zuen, eta bertan galdetu egiten zuen zergatik ez ziren emakumeen azpikulturak agertzen Dick Hebdige-ren 1979ko Subculture. The Social Meaning of Style eragin handiko liburuan, bai

## dig me out

ohartarazi ere gazteen azpikulturen inguruan esanahien eraikuntza ulertzeko asmoa zuen edozein ikerketak etxe barruko esparru pribatua kontuan hartu beharko zuela eszena publikoa bezainbeste, eta hori esan zuen nesken aukerak mugikortasunari eta espazio publikoei zegokienez mutilenak baino askoz apalagoak ziren garaian. Bi artikuluak Simon Frith eta Andrea Goodwinek editore lanak egindako 1990eko On Record: Rock, Pop and the Written Word bilduma klasikoan argitaratuta daude. Garrantzitsua da era berean haren Shut Up and Dance: Youth Culture and Changing Modes of Femininity (1993) saiakera aipatzea; bertan aztertzen ditu neska gazteek feminismoarekin dituzten identifikazioen paradoxak. Beste lan batzuen artean daude Postmodernism and Popular Culture (1994); British Fashion Design (1998) eta In the Culture Society: Art, Fashion and Popular Music (1999), zeinean egungo gizarte kontsumitzaileetako arte eta kultura praktiken garapenaz eta Erresuma Batuko egunerokotasunaren estetizazioaz baitihardu. Arestian, Paul Gilroy eta Lawrence Grossberg-ekin batera, Without Guarantees: In Honour of Stuart Hall (2000) argitaratu du, eta 2005ean The Uses of Cultural Studies (SAGE argitaletxea) argitaratu zuen. Liburu horretan (orain bi txinatar argitalpenetan agertuko dena) McRobbiek Butler, Hall eta Gilroy bezalako teoriarrien funtsezko testuak azaltzen ditu, baina bere kritika berezia ere eransten du, eta aldi berean mundu teoriko horiek luzatu egiten ditu lotura egin dezaten kultura eta arte produkzioko oinarritzko prozesuekin. Haren liburu berria, The Aftermath of Feminism: Gender, Culture and Social Change, 2008ko azaroan argitaratuko da, eta alemanera itzultzen ari dira une honetan. McRobbieren lana beste zenbait prozesutan ere zentratzen da, hala nola belaunaldien arteko eztabaida premiazkoa bultzatzean harreman politika moduan, gauza berrietatik

dig me out

ikasteko jakin-min bizian, dedikazio pedagogikoa itzelekoan eta era argian baina konplexuan idazteko ahaleaginean jende askok irakurri dezan. Haren hitzak erabilita, lan grinatsua esan lekiok: feminismoa gaur egungo terminoetan birpentsatzea, gaur egun politikoa zer den zehazteko lan egitea, eta horiek egiteko saietsezinak dira proiektu feminista praktika emantzipatzaile gisa garatzen jarraitzeko orduan.

Galdera: Zure liburu berria, *The Aftermaths of Feminism: Gender, Culture and Social Change* 2008ko azaroan argitaratuko da. Liburu horretan zein dira aztertutako arazo eta argudio nagusiak?

Angela McRobbie: Nire liburuak azaltzen du nola feminismoa desegin egin den azken hogeitun urteotan, eta desegite prozesu ekidinezin batez dihardu. Artikulazio kontzeptua hartu eta hankaz gora jartzen dut, beraz desartikulazioaz ari naiz. Baina desartikulazio hori aurrera eramanez eta bigarren maila batean jartzen du aukera, eskubide berreskuratze eta askatasun alorreko diskurtso itxuraz ospetsuago batek. "Feminista-faltsuek-modulatutako-askatasun" hori manipulatu egiten du lehenik eta behin kultura komertzialak, baina gero gobernagarritasunaren bidez gertatzen da manipulazioa, azken batean feminismoaren amaiera eragiteko. Hori da errealitatean nire liburuaren argudioa. Dirudien baino askoz prozesu konplexuago bat dagoela. Horregatik erabiltzen dut kontzeptu hori, feminismoa kontuan hartzea jada horren premiarik ez dagoela proposatzeko, iraganeko gauza dela esateko. Horregatik argudiatzen dut hartara feminismoa mamu bat izatera murrizten dela, halako presentzia kezkarri bat izatera, baina liburuaren amaieran argi esaten dut feminismoa bizirik dagoela, bere modura, alor

## dig me out

akademikoan. Eta hor gauza interesgarria gertatu da, zeren Europako edozein unibertsitatetara bazoaz, emakume gazte izugarri dinamikoak daude, oso aktiboak, neska beltzak, feminista edo queer gisa identifikatuko liratekeenak eta oso grinatsuki dihardutenak feminismoaz. Beraz, azken atalean saiatu naiz asmatzen zer ari den gertatzen unibertsitateko feminismoari dagokionez, eta horretarako zalantzan jartzen ditut gaur egungo feminismoan dauden bertsio optimistagoak, baikortasunean dabiltzanak. Lehen partean Europako "hasieratik aintzat hartze" [gender mainstream] diskurtsoan zentratzen naiz, ziur aski oso ongi ezagutzen duzuenak, Europako eta Erresuma Batuko diskurtso nagusia delako. "Hasieratik aintzat hartze" hori Erresuma Batuko gobernagarritasunari lotu eta "hasieratik aintzat hartze" hori aztertzen dut, eta bigarren partean feminismoaren hirugarren uhin estiloko neskak aztertzen ditut. Zeren eta nahiz gauza asko egon interneten kritikoagoa dena, diskurtsoa oso ospatze-zalea da, kultura komertzialaren aldekoa benetan. Nire artikulua argitaratzen dituzte jende horrenekin, eta horrek nolabaiteko amorrua ematen dit. Badago liburu bat, All About the Girl izenekoa, eta oso sarrera kritiko batekin hasten naiz, eta liburuaren gainerako egileak ari dira "tira, eskerrak erosketak egin ahal izango ditugun", beraz haiei ere egurra ematen diet, baina hirugarren sekzioan Braidotti aztertzen dut, eta Judith Butlerri eta Rosi Braidottiri begiratzen diet, eta galdera egiten dut, galdera soziologikoagoa filosofikoa baino, alegia, galdera instituzionala: neska gazteak nola iristen diren A puntutik Braidottiren Bra. Beraz, zein da egin beharreko urratsa buru-dinamika sortzailezko, asmamenezko espazio horretara iristeko. Braidottik asko hitz egiten du asmamenez, eta Deleuzeren asmamen alorreko hiztegia darabil. Nik galdera oinarritzkoa egiten dut, besterik ez,

dig me out

eta jakina, bilakatze nomaden ingurukoa da. Nola iristen zara instituzioetan agian sarbide zaila izango duen bilakatze subjektibozko posizio horretara. Beraz prozesu hori esplika dezan eskatzen diot, eta galderari erantzuteko atzera egiten dut, Kultur Azterketetara, eta esaten dut, bilakatze horietako gehienak gaur egun arteen sektore erdi instituzionalizatu, estatutik ordaindutakoetan edo EBk dirulaguntzak emandako proiektuetan edo hezkuntzan gertatzen badira, orduan sarbide prozesu horietara begiratu behar dugu, eta non jarraitzen duten existitzen edo non ari diren geldituak izaten. Beraz bukatu egiten dut unibertsitatearen espazio horrekin eta Kultur Azterketen hasierako eztabaidetara egiten dut... Raymond Williamsengana, sarbide aukerak eta kanpoko hezkuntza eta jendeak bilakatze-espazio horietan sartu ahal izateko zer behar duen. Lotura egiten dut eta Gayatri Spivaken lana erabiltzen dut galdetzeko zer den izatea, esan bazenezake bilakatze nomada horiek guztiak daudela; jakina, etorkinen literatura hartzen baduzu, etorkina nola bilakatzen da idazteko gai den pertsona?

G: Bilakatze nomadaren ideia dago, eta bestalde sarbidearen auzia dago. Nolako erlazioa uste duzu dagoela bien artean industria kreatiboetara begiratzen duzunean?

Angela McRobbie: Uste dut gaizki ulertu bat dela industria kreatiboak elitista edo klase ertain batik bat zurientzako lekutzat jotzea. Azkarregi hartutako ondorioa da hori. Ongi aztertu eta ulertu behar da prozesua, ospe gabeko unibertsitateetan gertatzen ari dena, baita Erresuma Batuan gobernu eskola alorrean arte performatiboetan eta medioetan dirutza izugarriak jartzen ari denean ere. Uste nuen industria kreatiboetarako sarbideaz galdetzen zenidatela. Azaletik mutil zurien klub moduan ikus

## dig me out

daiteke, baina nik uste hori egiten ari den ikerketa lan mugatu jakin baten emaitza dela neurri handi batean. Eta ikerketa enpiriko funtsatu nahikorik ez baita izan, suposatu egin da lagunekin bazaude edo mutil zurientzako kultur enpresarien klub batera bazoaz, hori puntakoa dela eta enpresa handien mundutik hurbilago dagoela. Hor gertatu da gurutzatze bat enpresa handien eta ekonomia txiki freelanceren artean, batez ere medioetan. Baina epe luzeago batera begiratzen baduzu eta aztertzen baduzu kultura eta hezkuntza alorreko politikaren eta planifikatu gabeko arteen sektore kreatiboaren arteko erlazioa hiri gehienetan, konturatuko zara talde hori ez dela horren homogeneoa. Kontua da jendea ez dela atera DJei edo gazte beltzei elkarrizketak egitera. Inork ez ditu ikertu Londreseko musikari beltz gazteen lanbideak eta karrerak. Inork ez du hori egin. Eta bada, bai, garaia industria kreatiboari kritika feminista bat egiteko.

G: Antza denez queer komunitateak une honetan esperientzia prozesu-ikuspegi batetik esploratzen duen lana hartzen eta garatzen ari dira. Era honetan, azterketa berriak, teoria postestrukturalisten eta orobat biologiaren eta neurozientziaren berrikuspenen eraginpean, garrantzia ematen ari dira fluxu, bilakatze eta prozesu nozioei, kategoria identitarioen eta are "gurutze-bideko" paradigmen aurretik. Azterketa unitatea material semiotikotik bilakatze eta efektu nozioetara aldatuta, azterketa horiek hierarkia bat sortzen ari dira hein batean, lehentasuna emanez "post-identitateari" eta arrotz sentitzeari teoria eta politika feministan, sozialismoaren eta marxismoaren eraginpean garatu zen bezala. Testuinguru horretan, nola ikusten duzu feminismoaren eta queeren arteko gurutzatzearen etorkizuna?

dig me out

Angela McRobbie: Bai, ados nago gurutzatze teoria zurrunezia dela, gehiegi dela honako bloke honen eta harako beste bloke horren arteko bat egitea. Konturatzen naiz queer hitzak gehiago hartzen duela barne eta erabiltzen errazagoa dela genero-ekintzaile bat bazara eta feminismo zaharra gehiegi definitua iruditzen bazaizu gaur egun hainbesteko garrantzia ez duen hiztegi baten bidez, alegia: amatasuna, "patriarkatuaren" kritika, e.a., eta era berean iruditzen zait queer politikak sexu-erradikalismo berri baten aukera eskaintzen duela, zalantzarik gabe. Baina deitoratzen dut orobat feminismoaren galera, lotuta baitago lesbien eta gay politikari, deitoratzen dut haurtzaindegian lan egitera behartutako gizonak galdu izana, eta guraso bakan feministen eta ama lesbien artean zeuden espazio komunak. Queertasunak feminismoaren tokia hartzen duenean, hartzen baldin badu, galdera da nor edo zer geratuko den atzean. Halaber deitoratzen dut 80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran "feminismo sozialista" halako indarra zuten ahots haien galera, eta psikoanalisi feministaren garrantziarena. Hori ere Deleuze eta Guattariren anti-ediporen barruan sartu izan da, baina ni geratzen naiz pentsatzen leku publikoagoren bat egon ote daitekeen, eta ez espezialistena bakarrik, psikoanalisiaren politika feministarentzat. Eta hori saiatu naiz egiten (agian ez dut asmatu) nire liburu berriaren laugarren atalean, izenburuz "Amorru irakurtezina: emakume gazteen arazo post-feminista", eta bertsio labur bat argitaratuta dago jada Studi Culturali- ren azken alean. Baina belaunaldien arteko eztabaida gehiago ikusi nahi nuke gai sorta baten inguruan, besteak beste: non geratu da desiraren politika? Baita atzera begiratzea ere Mary McIntosh eta Michelle Barratt-en "Anti-Social Family" bezalako liburuei.

dig me out

G: Egingarria ikusten al duzu hori?

Angela McRobbie: Uste dut nahiko zaila dela, nire belaunaldiko jende gehienari jada ez zaiolako interesatzen hori egitea. Esate baterako, McIntosh eta Michele Barrett. Haien lana izugarri garrantzitsua izan zen; eta belaunaldien arteko elkarrizketaz ari zarenez, esan nahi nuke haien lana nire ikasleei irakurtzeko ematen diedala, eta txundituta geratzen direla irakurtzen dutenean. Baina tira, Mary McIntosh erretiratuta dago orain, eta kanpainak egiten ditu "adinduei lagundu" gaiaren inguruan, eta Michele Barretti dagokionez, ni baino agian bost urte zaharragoa da, eta haren lana espazio erabat berri eta bestelako batean ari da garatzen. Lehen Mundu Gerraz ari da idazten. Eta zergatik izan behar luke lotura horiek egiteko kezka? Beharbada nire arazoa da. Kultur Azterketetan eta Stuart Hallen eraginpean beti zegoen belaunaldien arteko aukera hori, Stuartek loturak baitzituen Black Arts-ekin, Isaac Julien, Kobena Mercer eta beste hainbat eta hainbatekin.

G: "Bilakatzearen" diskurtso horren mugaz pentsatzen dut, feminismo sozialista edo marxismoa bezalako tradizio politikoekin alderatuta. Eta ez dakit nola ikusiko duzun hori etorkizunera begira...

Angela McRobbie: Uste dut bolada luze batean Kultur Azterketak eta politika elkar eragin eroso samar eta emankorrean bizi izan zirela horretarako teoriaren balioa bertan behera utzi behar izan gabe. Baina jende hura, Chantal Mouffe, Ernesto Laclau, Stuart Hall, Jacqueline Rose, nahiz eta bera Kultur Azterketetako pertsona ez izan... Uste dut mozketak puntua politikotasuna dela, zeren



dig me out

eta Stuart Hallek aztertu ohi zuen politika hegemonikoa, britainiar erregimen politikoa edo Erresuma Batuko kultura alorreko politika, hurbil egonda gobernagarritasun kontuetatik edo think tanketatik edo itxura bat izatetik, ahotsa, eragina izatetik Laborismo Berriaren kritikan... uste dut hori guztia bukatu dela. Ezinezko gauza da, nire ustez. Beste politika mota batzuk daude orain, eta pentsatzen dut: garai batean zegoen harremana Britainiar Kultur Azterketen eta Britainiar Estatuaren artean, topiko horren kritika, Laborismo Berriaren kritika, barne politika mota hori instituzionalizatzea... uste dut hori ahaztu egin behar dela. Eta uste dut hori gertatzen dela orain espazio hildako bat delako, nahiz eta jende asko behin eta berriz bertan esku hartzen saiatu, baina ez da espazio produktibo bat bertan esku hartzeko. Unibertsitatea da, eta une honetan sortzen ari diren politika mota jakin batzuk, Judith Butler murgilduta dabilen politika mota jakin batzuk. Uste dut hori askoz eraginkorragoa dela. Baina orduan kontua da, demagun, gerraren inguruan, Bushen kritikaren, eskasia kontzeptuen eta Guantanamoren inguruan egiten ari den lan guztia, eta adibidez Jaqueline Roseren lana Israelez; jakina, ezin duzu inola ere neurtu nolako eragina izango duen horrek guztiak. Zabalik dago, bere funtzionamenduari dagokionez. Zer den politikoa, eta politikoa beharbada gertakariak eta topaketak dira; baina gertakari eta topaketa horiek garai batean baino hurbilago daude unibertsitatetik. Ez daude EBN edo haren programa intelektual eta politikoan.

G: Nola ikusten dituzu musikaren inguruko zure artikuluak, hala nola Rock and Sexuality, Settling Accounts on Subcultures. A Feminist Critique, politikari eta azpikulturei dagokienez? Nola ikusten duzu lan hori atzera begira?

## dig me out

Angela McRobbie: Galdera interesgarria da hori. Pentsatu egin behar dut. Gustura sentitzen naiz harekin hasierako Kultur Azterketen testuinguruan jartzen baduzu. Puntu batetik aurrera ez dut azpikulturez gogoeta egiten jarraitu nahi, argi dago ez duzula bizitza osoa gauza berean lan egiten emango. Beraz, uste dut ongi sentiarazten nauen nire lanaren zatiak direla Jackie aldizkarian agertutakoak, eta ongi iruditzen zait Birminghameko mutilen kritika rocka, sexua eta azpikulturen inguruan, eta primeran iruditzen zait Second-Hand Dresses and the Role of the Ragmarket artikulua. Uste dut hark desbideratu egin zuela arreta azpikulturetatik esperientziak diren aldetik azpikulturetara produkzio ekonomiak diren aldetik.

Baina egia esateko ez nintzen batere eroso sentitu, eta hori kontu korapilatsuago bat da, uste dudalako Birminghamen klase kontuak azpimarratzea garrantzitsua zela garai hartan eta, jakina, arrazak, generoak eta sexualitateak hartu behar zuten haren lekua. Baina ez naiz sekula eroso sentitu langile klasearen gaineko perspektiba kulturalista baten barruan, ez zelako nire esperientzia. Orain konturatzen naiz tradizio estrukturalista batetik bazentzen klasea bestelako perspektiba batetik galdekatu zenezakeen kategoria zela, baina halako erromantizismo bat zegoen klase ideiarengatik. Eta logikoa da horretaz pentsatzen jartzen naizenean: zergatik iruditzen zitzaidan langile klaseko neskez pentsatu behar nuela? Ba hori nolabaiteko kritika feminista sozialistatik zetorren, gutxi gorabehera zioena: ongi, jende gazteaz pentsatzen ari bazara, ez zenuke klase ertaineko emakume gazteaz pentsatu behar, haiek egoera abantailatsuan daudelako. Garai hartako soziologiaren mugak, edo garai hartako Kultur Azterketen eta soziologiaren gurutzatzea zen

dig me out

aztertzen ari zinen talde sozialez gogoeta egiten bazenuen haietaz pentsatu behar zenuela edo klase ertainekoak edo langile klasekoak zirelakoan, eta klase ertaineko neskek aukeratzeak azterketa oso ikuspegi estukoa ekarriko zuen. Baina horren alde txarra da gutxi teorizatu zela langile klaseko jendearekiko, jardunean aritzen zinen neskekiko harremana. Orain konturatzen naiz Paul Willisek zalantzarik gabe funtziona zezakeela bere gaitasunaren eta bere biografiaren barruan. Uste dut beti sentitu nintzela deseroso, eta nire iritzian azpikulturek konpondu zuten hori, azpikulturetan bertan klase nahasketa eta arraza nahasketa handia zegoelako. Eta bazegoen beste artikulu bat oraindik ongi iruditzen zaidana, The Politics of Feminist Research izenekoa, 1981eko Feminist Reviewren hasierako ale batean argitaratu zena. Baina ez dut gogoko lan hori garrantzi garaikidea balu bezala erabilia izatea; garrantzi historikoa du bakarrik.

Mila esker elkarrizketagatik.